

M^a CONCEPCION UGALDE IZETA Bergarako Udaleko Idazkariak

EGIAZTATZEN DU Alkate jaunak 2019ko uztailaren 19an ondorengo dekretua eman duela:

“Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2019-KALD-000005-00 zenbakiduna.

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena.

Arestian aipatutako Foru Arauak 31. artikuluen 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

2019ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena (gastuak)

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 0700.601.454.00.01 2019	BASERRI BIDEAK ETA KUNETAK	35.000,00
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		35.000,00

2019ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0101.720.010.00.01 2019	Dipu (Foru Aldundi) kapital ekarpenak	35.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			35.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.”

Eta horrela jasota gera dadin, luzatzen du egiaztagiri hau, Bergaran, 2019ko uztailaren 19an.

